Llodio, 18 de octubre de 2003

Estos diez minutos de silencio representan nuestro pacífico gesto de solidaridad hacia los vecinos de Llodio y de muchos otros pueblos de Euskal Herria que viven perseguidos y permanentemente amenazados. Es una solidaridad que nos hace un poco más humanos y que rompe el cerco que pretenden crear en torno a sus víctimas quienes renuncian a la palabra en favor de la violencia.

Estas personas que tratan de atemorizarnos, no sólo nos quieren trasladar su propio terror a la libertad y a la democracia, sino que quieren también distorsionar la realidad de tal modo que pretenden hacernos creer que la violencia es un mal necesario y moralmente justificado. En el caso de la violencia de persecución, tratan de hacer ver que todas las personas acosadas, asediadas, amenazadas, todas estas personas que conviven con una permanente condena de muerte sobre su ser, sufren esta situación porque tienen alguna culpa. En unos casos es su ideología, en otros su profesión, en otros sus convicciones morales... pero nosotros no seremos quienes caigamos en esa trampa. Ni existe ninguna razón, aquí y ahora, para utilizar la violencia, ni ninguna de las personas perseguidas son culpables por el simple hecho de ejercer su profesión o defender su ideología con libertad. Por eso estamos aquí ciudadanos de muy diversos pensamientos y convicciones porque, al margen de cuál sea la ideología de cada cual, del perseguido y del no perseguido, todos sabemos que sólo seremos libres, cuando quienes sufren la violencia de persecución, también lo sean.

Nuestra reciente historia nos ha enseñado que mirar hacia otro lado cuando vemos una injusticia, cuando vemos vulnerar los derechos más fundamentales de un ser humano, es reflejo de un grave deterioro moral y de una importante falta de conciencia colectiva, fundamental en una sociedad como la nuestra. No os vamos a dejar solos. Y no lo haremos porque sois parte de nuestra sociedad, sois nuestros vecinos, amigos, familiares, compañeros de trabajo... y os queremos libres como el resto de conciudadanos. Insistimos, porque si te amenazan, nos agreden.

Hamar minutuko isilune honek etengabeko jazarpen eta mehatxupean bizi diren Laudioko eta beste herri askotako bizilagunen aldeko elkartasunezko zeinu baketsua izan nahi du. Gizatiarrago egiten gaituen elkartasuna da eta, era berean, indarkeriaren alde hitzari uko egiten diotenek beren biktimen inguruan ezarri nahi duten hesia hausten duen elkartasuna.

Beldurtu nahi gaituzten pertsona hauek, beren izuaz askatasuna eta demokrazia lohitzeaz gain, errealitatea desitxuratu nahi dute, indarkeria ezinbesteko gaitza eta moralki justifikagarria dela sinestaraziz. Jazarpen indarkeriari dagokionez, zera ikustarazi nahi digute: erasotako, jazarritako, mehatxatutako pertsona guztiak, etengabeko heriotza-zigorrera kondenatuta bizi diren pertsona hauek, erruren bat dutelako jasaten dutela egoera hau. Batzuetan, beren ideologia da, beste batzuetan, beren lanbidea, edo beren uste moralak... baina gu ez gara tranpa horretan jausiko. Ez dago inolako arrazoirik, hemen eta orain, indarkeria erabiltzeko, eta jazarritako pertsona bakar bat ere ez da errudun bere lanbidea gauzatzeagatik edo bere ideologia askatasunez defendatzeagatik. Horregatik gaude hemen pentsaera eta uste askotako herritarrak, jazarriaren edo jazarria ez denaren ideologia bata ala bestea izanik ere, denok dakigulako gu aske izango bagara jazarpen indarkeria jasaten dutenak ere aske izan behar dutela.

Oraintsuko historiak erakutsi digunez, bidegabekeriaren bat ikusten dugunean, gizakiaren funtsezko eskubideak bortxatzen direnean, beste aldera begiratzea, narriadura moral larriaren eta gurea bezalako gizartean nahitaezkoa den kontzientzia kolektiborik ezaren isla da. Ez zaituztegu bakarrik utziko. Eta ez dugu horrelakorik egingo, gure gizarteko kide zaretelako, gure auzokide, lagun, etxeko, lankide... zaretelako, eta, gainerako herritarren antzera, libre nahi zaituztegulako. Behin eta berriro diogu, mehatxua zuri, erasoa guri.